

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Saioa Mateorena Zozaia

*Leitza,
Nafarroa
(1999)*

Aurkibidea



Biografia



1999ko azaroaren 17an jaioa, Leitzakoa da Saioa. Aita Pasaitarra eta ama Narbartekoa ditu, eta anaia bat gazteagoa. Leitzako Amazabal institutuan ari zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasketak egiten, Andoni Amadoz koadrilako lagunarekin elkarrizketa egin genionean. Naturaz, kirolaz, euskal dantzaz, bertsolaritzaz, mendirako zaletasunaz, genero kontuez, IKTez eta musikaz mintzatu ginen Saioarekin, besteak beste. Saioari eta koadrilako Andoni Amadoz, Beñat Altzelai eta Malen barriolari, Saioaren gurasoen etxean egin genien elkarrizketa, Leitzan.

Zintak

LTZ-004

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-01-02
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

LTZ-005

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-01-02
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

LTZ-009

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-01-02
- **Iraupena:** 19 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Leitzan denak batera

- **Erref:** LTZ-004/002
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:05:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Adin bereko gazte guztiak elkarrekin ibiltzen dira.

2. Euskal dantza

- **Erref:** LTZ-004/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

DBH lehenengo mailan hasi ziren dantza taldean. Urtean pare bat aldiz egiten dute dantza Leitzan. Batez ere herri kiroletarako zaletasuna aipatzen dute herrian, ez euskal dantzakoa.

3. Leitzako kirolariak

- **Erref:** LTZ-004/004
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:07:26. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Zenbait dira Leitzako kirolari famatuak, baita kazetari eta aktoreak ere bai.

4. Mendizaletasuna

- **Erref:** LTZ-004/006
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Biak dira mendizaleak, eta ingurua mendian ibiltzeko aproposa dela diote. Eolikoak aipatzen ditu Andonik.

5. Mendi buelta ala tontorreraino igo?

- **Erref:** LTZ-004/008
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:13:21. **Bukatu:** 00:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Askotan mendian haizea hartzea beharrezkoa dute, deskonektatzeko. Oso barneraturik dute mendira joateko ohitura.

6. Kanpotik jendea etortzen dela nabari

- **Erref:** LTZ-004/009
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

<p>Landetxetara eta turismoa egitera jendea doala nabaritzen dute.</p>

Transkripzioa

- Eta, jenderik eta sumatzen da?

- S: Bai.

- A: Bueno.

- S: Nik bai, nik askotan sumatzen dot hemen pareko etxen pos da etxe erdie beraiena ta beste etxen zati ttiki bat pos etxe rurala due. Ta pos askotan ikusten da kotxek ta jendea ta ume batzuk jardiñean ta hola. Baina bueno ez dakit.

- A: Nik ikusten dot askotan... ez etxe ruraletarako, ikusten det pues hor estazioan dau aparkamendu bet, eta justo nere amona hor bizi da ta astebukaeraro beti-beti-beti daude kotxek pues edo paseo bat emaitteko edo lo que sea beño beti kotxek daude. Beti.

- S: Bai.

- A: Ta egualdi txarra itten bado're, beti! Beti-beti.

7. Mendiko isiltasuna eta naturaren hotsak maite

- **Erref:** LTZ-004/010
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Natura » Ingurugiroa

Laburpena:

Bakardadean egotea, mendiko haizea arnastea, naturakohotsak entzutea... maite dute mendira joatean.

8. Mendira bakarrik, edo gutxi batzuk

- **Erref:** LTZ-004/011
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:20:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Bakoitzak bere ogitartekoa eramaten du, eta arratsalde pasa egoteko jokoak eramaten dituzte. Orokorrean mendia garbia dagoela diote.

9. Irakurzaleak biak

- **Erref:** LTZ-004/013
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:21:12. **Bukatu:** 00:23:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Andonik liburuak hartu eta segituan bukatzen dituela dio, Baztango trilogia bereziki gustatu zaio. Saioak udan irakurtzen du batez ere, ikasturtean ez du denborarik.

10. Irakurzaletsuna etxetik datorkie

- **Erref:** LTZ-004/014
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:23:24. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Bien kasuan etxean transmititu zaie irakurzaletasuna.

11. Eskolako derrigorrezko liburuak

- **Erref:** LTZ-004/016
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:25:45. **Bukatu:** 00:27:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Liburuak irakurri eta ondoren eskolarako laburpena egin behar izaten zuten.

12. Geronimo Stiltonen liburuak gomendatuz

- **Erref:** LTZ-004/017
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:27:01. **Bukatu:** 00:28:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Batzuetan, ikasleen artean liburuak gomendatzen zituzten.

13. Literatur generoak eta hizkuntza

- **Erref:** LTZ-004/019
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Nobela beltzak ditu gustuko Andonik. Saioak, aldiz, denetariko liburuak irakurtzen ditu. Batez ere gaztelaniaz irakurtzen dute, euskara batuan irakurtzea ez baitute gustuko, eta Saioak errazagoa egiten zaiola dio.

14. Liburu-dendetara joaten al zarete?

- **Erref:** LTZ-004/021
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:32:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Saioaren kasuan saiatu izan da liburutegietan euskaraz liburuak bilatzen. Andonik ez du inoiz horrelakorik egin.

15. Gustuko liburuak

- **Erref:** LTZ-004/022
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:33:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Jararen trilogioa eta misterio liburu batzuk dituzte gogoan.

16. Helburu komertzialak literaturan

- **Erref:** LTZ-004/024
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:33:26. **Bukatu:** 00:36:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Zenbait autorek dirua irabazteko asmoz idazten dutela aipatzen dute.

17. Uretako kirolak

- **Erref:** LTZ-004/035
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:55:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Betidanik gustatu izan zaio ur azpian ibiltzea. Ez da gogoratzen norekin ikasi zuen. Igeriketa egiten zuen garai batean, baina ondoren utzi egin zuen denbora faltagatik.

18. Futbol salako jokalaria

- **Erref:** LTZ-004/036
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:55:28. **Bukatu:** 00:56:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Ostiraleko entrenatzen du Leitzan. Helburua ez da lehiaketak egitea, baizik eta kirola egitea.

19. Bertso-eskolako neska bakarra

- **Erref:** LTZ-004/037
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:56:48. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Musika oso gustuko duela dio Saioak. Idaztea ere gustuko du, baita bertsolaritza ere. Herriko bertso-eskolan ibili zen gazteagoa zenean. Bertso-udalekuetara ere joan izan da debora luzez.

20. Bertso-udalekuak

- **Erref:** LTZ-004/038
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:02:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Zerotik hastea gustatu zaio betidanik, errutinarekin haustea. Bertsolariei dagokienez, Egaña, Jon Maia eta Sustrai Colina aipatzen ditu.

21. Urduritasuna bertsoen etsai

- **Erref:** LTZ-004/039
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:02:39. **Bukatu:** 01:03:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Urduritasuna oztopoa dela dio bertsoan ibiltzeko garaian.

22. Musika eta abestea gustuko

- **Erref:** LTZ-004/041
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 01:04:54. **Bukatu:** 01:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Leitzako musika eskolan dabil, pianoa jotzen du. Erlajatu egiten dela dio pianoa jotzean.

23. Abestea familiarik datorkio

- **Erref:** LTZ-004/043
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:06:01. **Bukatu:** 01:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Etxean bezain ongi abesteko arazoa aipatzen du, urduritasuna dela eta.

24. Abesten non ikasi duzu gehienbat?

- **Erref:** LTZ-004/045
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:08:30. **Bukatu:** 01:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika eskolan formatu dela dio.

25. "Shopping" eta gizartean sartzen den presioa

- **Erref:** LTZ-004/047
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:11:26. **Bukatu:** 01:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Andoniri erosketak egitea asko gustatzen ziao, baina bakarrik joaten denean. Saioak kontsumismoarekin lotzen du arropa eroste hori, eta emakumeen gorputzean duten eraginaz dihardu.

26. Zerk sentiarazi gaitzake presionatuta? I

- **Erref:** LTZ-004/049
- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 01:17:00. **Bukatu:** 01:22:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Manikien neurriek, modeloen gorputzek, edertasun kanonak, telebistako iragarki matxistek, bular handiagoak izateko bularretakoek... presionatu egiten dituztela uste dute.</p>

27. Zerk sentiarazi gaitzake presionatuta? II

- **Erref:** LTZ-004/050
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 01:22:18. **Bukatu:** 01:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Galtza motek, makillajeak, txukun joan behar izateak, bakarrik pozik bizi ezin izateak... presioa sortzen die.</p>

28. "Barrengoa ez da behar beste baloratzen"

- **Erref:** LTZ-004/053
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:30:41. **Bukatu:** 01:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Matxismoaz, printsesez eta marrazki bizidunez ari da Saioa.

29. Telebistako lehiaketak

- **Erref:** LTZ-004/054
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:31:53. **Bukatu:** 01:33:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Telebistako lehiaketa programen inguruan ari dira pasarte honetan.

30. Barne egoeraren arabeko musika

- **Erref:** LTZ-005/002
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:00:17. **Bukatu:** 00:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika antzekoa entzuten dute egunerokotasunean. Internetetik jaitsi eta Youtuben entzuten dituzte abestiak, batik bat mugikorrean.

31. Gustuko dituzten musika taldeak

- **Erref:** LTZ-005/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Andonik kanpoko musika entzuten du gehienbat. Malenek denetik entuten badu ere, euskal musika gustatzen zaio gehien. Saioak Ken Zazpi eta Hesian taldeak aipatzen ditu. Beñatek euskal musika entzuten du, Arkada Social, Berri Txarrak, En Tol Sarmento... WhatsApp bidez

32. WhatsApp bidez harremantzea

- **Erref:** LTZ-005/004
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:06:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Musika WhatsApp bidez partekatzen dute musika. Hiru WhatsApp talde dituztela diote: denena, neskena eta mutilena.

33. Zer entzuten zenuten gaztetxoagotan?

- **Erref:** LTZ-005/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Su Ta Gar, Berri Txarrak aipatzen ditu Beñatek. Ken Zazpi, Pirritx eta Porrotx, Txirri Mirri eta Txiribiton, eskolako kantak, gainontzekoek.

34. Oskorri

- **Erref:** LTZ-005/008
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:09:27. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Oskorri, Kortatu, La Polla Records, Itoitz, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, aipatzen dituzte denen artean.

35. telebista saioak

- **Erref:** LTZ-005/009
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Master Chef, Castle, Entre Fantasmas, La Que se Avecina, Aída, Big Bang Theory, Morden Family, Pequeñas Mentirosas, Teleberria, Antena 3 kateko berriak, Simpsonak, debateak... ikusten dituzte.

36. "Euskal telebistak lehiaketaren bat behar du"

- **Erref:** LTZ-005/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:12:56. **Bukatu:** 00:14:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Ia ez dute euskal telebista ikusten, berriak, marrazki bizidunak (txikitan), Vaya Semanita, Mihiluze, Kontrako Eztarria, Wazemank, Martin telesaia... aipatzen dituzte.

37. Zein da elikadura osasuntsua?

- **Erref:** LTZ-005/011
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:14:46. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:

Denek adierazten dute elikaduraren garrantzia. Etxeko arraultzak, baratzeko produktuak, fruta... jatea azpimarraten dute. Eskolaren garrantzia aipatzen du Andonik.

38. Garai konfliktiborik izan duzue?

- **Erref:** LTZ-005/013
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Haserreak denek aipatzen dituzte. Malenek amarekin talka egiten duela aipatzen du, Saioak 13 bat urte zitueneko garaia du gogoan, eta Beñatek azken bi urteetan igarri du gehiago haserretzen dela gurasoekin.

39. Mugikorra: gatazka

- **Erref:** LTZ-005/014
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:23:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Mugikorrak zenbaitentzat gatazka bat sortu zuen, bete batzuren kasuan, ordea, ez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com